

RIKARDO GÓMEZ / JOSEBA A. LAKARRA

# ***Euskalaritzaren historiaz: XVI-XIX. mendeak***

(557 orrialde)



GÓMEZ, R.;  
LAKARRA, J.A.,  
1992, *Euskalaritzaren historiaz:  
XVI-XIX. mendeak*,  
Donostia:  
Aldundia (ASJU  
XV).

J.A. Lakarra EHuko katedradun eta euskaltzainak eta R. Gómez EHuko irakasleak gidatu eta paratu dute liburu honen edizioa.

Lankideak hamazazpi dira, Unibertsitate ezberdinetakoak.

Hogeita sei ikertzailereren lana da hau, eta bakoitzak bere ikas-alor berezitutik hitz egiten du.

***Hizkuntzalaritza gertakari soziala den neurrian, eta hizkuntzen bizitza baldintza dezakeen heinean, berorren historiak era batera edo bestera hizkuntzen gizarteko bizitza ere ukitu du.***

***Halatsu, Euskalaritzak alde eta balio sozialak ditu: gramatika eta hiztegiak sortu eta argitaratzeak berak ahalegin pertsonala eta soziala eskatzen dituelako, eta berorietako ezagutza hedatu ahala, gizartean kultur lanabes eraginkorra bilaka daitekeelako.***

***Euskalaritza eguneratuak biziki lagundu du, adibidez, normalizazio-ahalegina, eta garai bateko erratuak atzerapena baizik ez dio ekarri euskarari gizartean.***

***Historia horren argigarri gertatuko zaio irakurleri liburu hau.***

Hogeita sei idazlanek osatzen dute liburu hau, horietako gehienak euskararen corpusari dagozkio eta beste hainbatek, ostera, alde soziala ere badu.

Gramatika eta lexikoaz sortu izan diren lanen berri ematen da, batzuetan eremu orokor bat nola landu den erakusteko (fonologia, gramatikak, hiztegiak, etab.), eta bestetan arazo xeheagoak arakatuz (deklina-bidea, aldaera grafikoak).

Hiztegiileen obrak pisu nabaria du orrialde hauetan; ez da harritzekoa: izan ere, hizkuntza ezagutu eta euskal ondarea jaso eta gorde nahiak eskatzen baitzuen zeregin idatzietarako tresna horiek sortzea.

Iraganeko protagonistei hainbat lan eskaini zaie, beren garrantzi historikoa argitan jarri nahirik: hor daude Poza (†1595), Garibai (†1599), Oihenart (†1667), Urte, Larramendi (†1766), Astarloa (†1806), Vinson (†1926), Campión (†1937), etab.

Euskarari buruzko ideia eta jarrerak egin zuten bideaz idazlan zainduak daude: Zer pentsatu izan da euskararen lurralde-mugez? Nola ikusi zituzten euskaldunek beren euskalkiak? Nolako ibilera historikoa izan dute euskarari buruzko ikerlanek?

Jakina denez, euskal ikasketetan erbestetik esan eta egindako lanek eraginik franko izan zuten gurean: Europako Errenazimentua, Argiak eta Erromantizismoa hona ere heldu ziren. Horra izen batzuk: Hervás, Humboldt, Bonaparte, Van Eys, Vinson.

Euskalaritzaz diharduen historiografia eskuera jartzen du liburuak; baliozkoa gertatzen da hori, ikaslanetan jarraitu nahi duenarentzat batik bat.